

ELKARTEAK

Gure ideia aurrera eraman ahal izateko, beste enpresa batzuekin aliantzak egin beharko genituzke. Gure enpresa, bidaiak antolatzean eta furgonetaren zerbitzua eskeintzean datza, bidaia horien barruan, guk antolatutako eta bezeroek eskatutako ekintza guztiak antolatzen ditugu. Horretarako, hainbat enpresekin lan egin beharko genuke.

Gure enpresak eskeintzen duen zerbitzuetariko bat piraguismoa egitea da, horretarako, Sobrón abentura parkearekin edo antzeko enpresekin kolaboratzea ondo etorriko litzaiguke, piraguak alokatzeko orduan, etab.

Beste adibide bat mendietatik natura sentitzeko gida espezializatu batzuekin kontaktuan jartzen gara, hala nola, Asier Pérez-ekin mendiko guida dena eta gida desberdinak antolatuta dauzkana, esaterako, Gorbeia parke naturaletik, euskal kostatik etab.

Hark joko-enpresekin bat egiten du, adibidez, Troca abentura. Enpresa hau joko dinamikoak eta halako ekintzak antolatzeaz arduratzen baita.

Horrez gain, gure enpresa eskaintzen duen beste aukera da zooetara joatea eta animaliei janaria emateko aukera izatea, horretarako Cabarcenorekin edo beste zooekin hitz egingo genuke.

Bestalde, La Perla SPArekin bat egiten dugu, masaje eksklusiboak, aquagym-eko ekintzak eskeintzen ditugu. SPA eta gero, hondartza alboan dagoenez, leku pribilegiatsu bat, edo leku "VIP" bat edukiko dute, lasai lasai bere denbora propioa disfrutatzeko.

Aipatutakoaz gain, Antzerki-emanaldiak gozatzeko Gasteizko Principal antzokiarekin harremanetan jartzen gara, haiek "catering-ak" prestatzen dizkigute eksklusiboki gure bezeroentzako.

Ibilbide gastronomikoak egiten ditugu, hainbat upeltegiekin lan egin genezake, gure bezeroek han antolatzen diren ruta eta katak goza dezaten.

Gainera, Argiñano ezagutzeko aukera edukiko dute bere jatetxean, guk harekin harremanetan jartzen garela, bere janari espeziala eta hoberena dastatzeko prest egoteko aukera edukiko duzue!

Gazteei eskaintzen diegunari dagokionez, horietako bat festibaletara joatea da eta bertan, kontzertua hasi baino lehen musika teknikariarekin egotea aukera izatea. Hori posiblea izateko, aldeztu aurretik festibala antolatzen duenarekin hitz egin beharko genuke eta akordio batera iritsi, gure bezeroak bizipen hori izateko.

Honekin batera, zerbait naturalagora hurbilduz, tirolina batera igotzeko aukera izango dute, hala nola, Sobron, Hontzaextrem... Esperientzia ahalik eta onena izan dezaten, haiekin harremanetan jarriko ginateke, leku bereko beste zati natural batzuetara sar daitezten.

Hala nola, Santa katalinako lorategi botanikoa; bertan, gunearekin zerikusia duen guztia azalduko dien gida batek gidatuko ditu.